



Foto-inkesta

Gabonak, Olentzeroa, Errege magoak...

Gure artean Eguberrietan opariak jasotzeko garaia dira. Dagoeneko hurbil ditugunez eta horretaz pentsatzen hasteko garaia iritsi denez, guk jendeari galdetu diogu:

- A- Nork ekartzen zizkizun opariak ttikia zinenean?
 B- Gaur egun, nori eskatzen dizkiozu opariak?
 C- Aurten zer eskatzeko asmotan zabilta?



Bego Martinez,
37 urte, irakaslea

A.- Haurtzaroan Errege Magoak etortzen ziren. Orain baino pobregoa omen ziren... Bortz anai-arreba ginen eta opari bana uzten ziguten. Gau horretako ilusioa kokortu arte izan nuen.

B.- Orain Olentzero heldu da lehendabizi. Estellara joaten gara Olentzerori ongi etorria ematera. Gero etxean uzten ditu opariak aita-ama eta bi alabandako. Erregeak amatxi-aitaxiren etxera etortzen dira eta familia handian ospatzen dugu.

C.- Aurten Olentzerori eskatuko nioke gau horretako magiak urte osoa irautea eta berarengan dugun sinismena ez itzaltzea.



Alberto Orokieta,
45 urte, langilea

A.- Lehen, ni haurra nintzenez, gure etxean erregeek ekartzen zizkiguten opariak.

B.- Orain berriz, bai erregeek bai Olentzerok, biek ekartzen dituzte.

C.- Aurten Olentzerori eguzkitarako betaurrekoak eskatuko dizkiot.



Asier Jordana,
13 urte, ikaslea

A.- Zer gustatzen zaizu gehien Eguberrietan? Gabonetan gehien gustatzen zaidana familiarekin egotea eta lagunekin ondo pasatzen egotea.

B.- Urte gehienetan opariak errege magoek eta Olentzerok, biek ekartzen dizkirate, baina eskatzen dudana oparia garestia bada, batek bakarrik ekartzen dit.

C.- Aurtengoan ordenagailu bat eskatu dut, horregatik Olentzerok bakarrik ekarriko dit.



Mari Karmen Etxeberria,
37 urte, langilea

A.- Ni txikia nintzenez erregeek ekartzen zizkiguten opariak, lehen horrela zen.

B.- Orain gehienbat Olentzerok ekartzen ditu gure etxean. Nik normalean ez diot ezer eskatzen baina batzuetan nire ordezkariak eskatzen dit.

C.- ... beraz aurten ere sorpresaren bat izan daiteke.

Montejurrako txoriak,
Montejurra laket

Mariziri

Muzkiko sermoia

Nola jakin nolakoa zen gure arbasoen euskara, nolakoa zen Estellerriko euskara? Ez da erraza erantzutea, batez ere Estellerria zabaldua eta anitza delako bai orain baita lehen ere: Goñerri, Ameskoa, Allin ibarra, Gesalatz, Deierrri, Berrotza, Solana... estellar erriberaraino. Toponimiak zantzuak ematen ditu tokian tokiko euskaldunen hizkera ezagutzeko. Baina baditugu testuak ere. Tamalez ez dira ugariak, baina adi egon behar dugu, nork daki ez ote den agertuko testu berriren bat liburu eta paper zaharren artean, orain gutxi Barindanon gertatu zen bezala.

Ikus dezagun Muzki herrian (Gesalatz) agertu ziren sermoien zatitxo hau, Goi nafarreraz:

“Eman zionean Jangoikoak notizie Isaias profeta-ri, Jerusalemgo Ziudadea izan behar zuela destruitua, erraten digu Profeta Sandu honek hainbertze susto, dolore eta aflikzio errezibitu zuela, eze geditu zela sentidorik bage eta erori zela lurrera hilik bezala. Eta hainbertze asustetu balibaze Profeta hure notizie honeki, zenbat gehiago behar ginduke gu asustetu egungo egunean? Bada Jangoiko berak ematen digu notizie bat guziz dolosoago eta abiso bat guziz sensibleago zein baita hurbil dagoela ia juicio Unibertsaleko egun hure, zeinetan izan behar du destruitue mundu guzие, eta orduan eskatu behar digula kontu ertxi bat mundu hontan egin eta egin ez dugun guzies. Notizie formidablea por zierto!...”

Horrela zioen Francisco Martinez de Morentinek, Muzkiko seme eta 1765-1782 urte tartean bertan apaiz izandakoa. Mezu apokaliptikoak irria sortarazten badigu ere, euskara guziz polita eta ulergarria adierazia dago eta ongi baino hobeki islatzen du garai hartan Gesalatzaren egiten zen euskara. Martinez de Morentindarren sortetxea omen zen Andresenean agertu zen lau sermoi biltzen dituen esku izkribua; lehendabiziko sermoiararen hasiera duzue testu zati hau. Manuel Lekuonak transkripzioa egin zuen 1973an. Han segitzen dute sermoiek, egun Andreseko izena duen etxean.



Kantuzaleen hitzordua izaten da Lizarran Kantuz. Hilean behin, normalki azkeneko larunbatean, 19:30etan, Behenafarroa kalean elkartzen gara. Kantutegiak bertan saltzen dira euro batean. Kantuzaleek soinuaren laguntza izaten dute: txandaka ibiltzen dira trikitixa eta akordeoia larunbatuz larunbata. Adin guzietako jendea biltzen da bertan eta aukera ederra izaten da erromeria giroan Lizarrako alde zaharretik kalejiran ibiltzeko ilunabar pasa. Orain artekoak arraskatatsuak izan dira, euskaldunok kantatzeko dugun zaletasunaren erakusgarri bikainak. Hurrengo ekitaldiak abenduaren 1ean eta 29an izanen dira.

Lizarran Kantuz

2.
zbk.

kotarro

2007ko azaroa

debaldeko alea

Lizarran, zer?

Pantxoia eta Peio

Eguna: abenduaren 3a.
 Ordua: 20:00
 Lekua: Julian Romano Musika Eskola.

Benito Lertxundi

Eguna: abenduaren 5a.
 Ordua: 22:00
 Lekua: Los Llanos zineman.

Txirri Mirri eta Txiribiton

Eguna: abenduaren 10 eta 11.
 Ordua: 19:00.
 Lekua: Los Llanos zineman.

Gu ta gutarrak

Eguna: abenduaren 15a.
 Ordua: 19:30.
 Lekua: Julian Romano Musika Eskola.



Lizarran Kantuz

Eguna: abenduaren 1a.
 Ordua: 19:30.
 Lekua: Behenafarroa kalea.

Ferien egitarau osoa (barruan)



Ari gara

la sei hilabeteko bidea egin dugu ekainean hasi ginetetik. Zenbait jarduera martxan jari dira: Lizarran kantuz, Txokolipuinak, Larunblai eta esku artean duzun Kotarro aldizkaria.

Ari gara, ari gara Gareanen. Elkartearen aurkezpen publikoaz geroztik hirugarren Kotarro duzue hau. Gure egitasmoa gorputzen eta sendotzen ari da, poliki baina gelditu gabe. Ekainean, sortzearekin batera, lehendabiziko aldizkaria atera eta Lizarran kantuz abiatu genuen. Udazkenak haurrendako jarduerak ekarri ditu eta azaroen hasiera eman diegu bi jarduera berriei: Txokolipuinak eta Larunblai, adin desberdinei bideraturik.

Estellerriko euskaldunoi gonbitea luzatu nahi dizuegu Gareanek antolatzen dituen jardueretara hurbiltzera

tu dutela euskara eskola esparrutik haratago eramatearen garrantzia.

Lagunarte bizkor eta gogotsuan ari gara lanean ekintzok prestatzeko. Baina ez gaude gure ziliborrari begira, gure asmoa baita euskararen alde lan egiten dutenen bilgunea izatea eta euskaraz jarduten duten elkarteekin batera lan egitea. Horregatik Euskararen Egunean parte hartu genuen Lizarrako berte elkarte batzuekin batera. Horrega-tik ere aldizkari

Balorzioak egiteko goizegi bada ere, pozozik gaude jarduerak izaten ari diren erantzuna ikusita. Lizarran kantuz parte hartze ederra izaten dugu eta kantutegia txiki geratu zaigu dagoeneko. Ipuin kontaketa (Txokolipuinak) txukun eraman zuten gidariek zein arduradunek eta deituriko haurren ia heren bat etorri zen. Larunblairako badugu haur taldea eta bi begirale zoragarri. Azken ekintza honek konpromiso handiago eskatzen du familien aldetik baina iduri du aita-amek ongi uler-

hau irekia dugu. Apaltasunez, euskaldunen bilgunea izan gaitzkeela uste dugu, Gareanen ezaugarrietako bat aniztasuna delako eta gure lan esparrua zabal delako.

Hortaz, hemendik Lizarrako eta Estellerriko euskaldunoi gonbitea luzatu nahi dizuegu Gareanera edo Gareanek antolatzen dituen jardueretara hurbiltzera, euskaraz aritzeko, lagunartean disfrutatzeko edo lagun berriak egiteko, gure presentzia karraketan areagotzeko, kantatuz, jolastuz, mintzatuz.

markoen ipinketa
zurriola
 enmarcaciones

Kale Nagusia, 80
 31200 Lizarra-Estella
 Tel.: 948 55 22 86 - 948 55 29 94

kukupela

Gazteen moda, opariak eta osagarriak

C/ Polideportivo, n° 4 bajo
 Tel. 948 54 60 81
 AYGUI (Navarra)

kotarro

2. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E
 31200 Lizarra - Nafarroa
 Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
 Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
 Ale kopurua: 1000



San Andres ferien egitaraua 2007

ORTZEGUNA, AZAROAREN 29a

20:00 ERTZANTZAREN MUSIKA BANDA
Los Llanos zineman.

ORTZIRALA, AZAROAREN 30a (San Andres Eguna)

05:30 AURORA SAN ANDRES-en OHORETAN
08:00 DIANAK
11:00 MEZA, San Pedro Ruakoa eliza. Irteeran, pastak eskainiko dituzte.
11:00 DASTATZE GASTRONOMIKOA. Foruen plazan.
17:30 Haurrentzako txokolatada eta haur-jolasak. San Martin plazan.
18:00 HITZALDIA

- Zereal-merkatuen egoera. Iosu Sanchez Vilches
- Bioerregaien eragina zerealen prezioetan
Alfredo Erviti López
Julián Romano Musika Eskolan.
19:00 GAITA-MUSIKA. Foruen plaza.
20:00 ZESENSUZKOA. Foruen plaza.
20:15 IPUIN KONTALARIA. Frai Diego Kultur Etxean.
22:00 ANTZERKIA "LA TIENDA DE LOS HORRORES".
La Bolla antzerki taldea. Los Llanos Zinean, 6 €
Nafarroako Zaldikoa, zaldikumearen erretzearen hasiera Santiago plazan.

LARUNBATA, ABENDUAREN 1a

09:00 NAZIO MAILAKO BADMINTON ZIRKUITOA
Kiroldegian.

09:30tik 14:30etara
NAFARROAKO ZALDIKOAREN
I. LEHIAKETA MORFOLOGIKOA
ZALDIKUMEAREN DASTATZEA pintxoak= 1 €.
Santiago plazan.

19:00 GAITA-MUSIKA. Foruen plaza.
20:00 ZESENSUZKOA. Foruen plaza.
19:00 GAZTA ETA ARDO DASTAKETA
Gazteriaren Etxean.

22:00 NAFARROAKO ARATXEA. ERRETZEN HASI
San Martin plazan.



IGANDEA, ABENDUAREN 2a (Azienda Feriaren Eguna)

08:00 DIANAK. Udal Gaiteroekin.
08:00 AZIENDA FERIA TRADIZIONALA. Santiago plazan.
10:00 Finalurrekoak eta Finalak, BADMINTON
ZIRKUITOA

09:00 ESTELLERRIKO ARTISAUTZA PRODUKTUAK
Foruen plazan.

09:00 ELIKAGAIEN FERIA TRADIZIONALA
Foruen plazan.

10:00tik 14:30etara
URBASA-ANDIAKO IV. GAZTA LEHIAKETA
13:30 Urbasa-Andiako gazten dastaketa.
San Martin plazan.

12:00 POSTA-TXARTELAREN EGUNA
Fraidego Kultur Etxean.

12:30 KALE-ANIMAZIOA
Aita Hilario Olazaran txistulariekin.
13:00 NAFARROAKO ARATXEA, DASTAKETA
San Martin plazan.

18:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK
1. Partida: Esain -Urrizelki / Diaz -Rai
2. Partida: Olaizola I - Zearra / Bengoetxea VI - Beloki

19:00 GAITA-MUSIKA. Foruen plazan.
20:00 ZESENSUZKOA. Foruen plazan.

ASTELEHENA, ABENDUAREN 3a (SAN FRANTZISKO)

05:30 SAN FRANTZISKO XABIERKOREN AURORA
13:00 NORA ABESBATZA Zangozako. San Migel elizan.
19:30 PANTXOA ETA PEIO
Julian Romano Musika Eskolan, doainik

ASTEAZKENA, ABENDUAREN 5a

19:00 ARDO EKOLOGIKOAREN III. SARI NAZIONALA
Gazteriaren Etxean.
20:00 BENITO LERTXUNDI
Los Llanos Zineman. Antolatzailea: Topagunea



ORTZEGUNA, ABENDUAREN 6a

11:00tik 14:30etara
ARDO EKOLOGIKOAREN III. FERIA Kiroldegian.
5 euro: kopa ardo guztiak dastatzeko eta pintxo bat.
11:00 IV. BOILUR FERIA ESTELLERRIAN kiroldegian.
12:00 Aizkolariak. "URREZKO AIZKORA",
F. Nazabal - Muguerza II
J. J. Lopez Azpilicueta - D. Vicente
Saralegi Harrijasotzailea, Remontival pilotalekuan
(sarrera dohainik).



ORTZIRALA, ABENDUAREN 7a

17:00 LUNNIS-ak "EL SHOW DE LA NAVIDAD",
kiroldegian, 8 €

LARUNBATA, ABENDUAREN 8a

19:30 "FRESNO" TALDEA Los Llanos zineak, 9 €

ERAKUSKETAK

Azaroaren 23tik abenduaren 16ra
POSTA-TXARTEL ZAHARREN ERAKUSKETA

Azaroaren 27tik abenduaren 9ra
NAFARROAKO ZALDIKOAREN
ETA AURIZKOAREN ARGAZKI ERAKUSKETA
Fraidego Kultur Etxean.

BERTZE EKITALDI BATZUK

REMONTIVAL PILOTALEKUKO LAU
ETA ERDIKO VI. TXAPELKETA
*Larunbata 1: goizez eta arratsaldez, Igandea 2: goizez,
Astelehena 3: goizez eta arratsaldez, Ortzeguna 6: arratsaldez,
Larunbata 8: goizez eta arratsaldez Igandea 9: goizez
eta arratsaldez.*

Garean-jarduerak



Larunblai

LARUNBLAI izenarekin hasi dira euskarazko tailerrak larunbat arratsaldeetan. Lizarran Larunblai egiteko asmoa Atarrabiatik ekarri da, hango Karrikaluz Euskaldunon Elkartekoek gomendatuta.

13 ume apuntatu dira hasiera batean ekintza honetan eta 2 begirale dauzkate: Nahia eta Oihane. Zortzi-bederatzi urte dituzten neska-mutikoentzat antolatuta da, euskaraz aritzeko eta lagunartean dibertitzeko.

Gazteriaren Etxean egiten dituzte saioak, 16:30etatik 18:30ak bitartean eta jolasak, eskulanak eta irteerak tartekatzen dituzte. Azaroaren 10ean izan zen lehenengo eguna.

Hilabeteko hiru larunbatetan burutuko da (bat libre utziz) eta maiatza arte iraungo du. Oraindik ere badago tokirik izena emateko!



Txokolipuinak

TXOKOLIPUINAK bi hitz elkartuta sortu da: alde batetik txokolata eta bestetik ipuinak.

Ekintza hau 5, 6 eta 7 urtetako neska-mutikoei eskaintzen zaie.

Azaroaren 7an egin zen lehenengo saioa, Polikiroldegiko Gela Aunitzean eta 74 haurrek hartu zuten parte.

Garazi eta Irati Lizarrako gazteak arduratu ziren ipuinak kontatzeaz eta musikatzeaz. Lau ipuineko emanaldia eskaini zuten eta erdian umeek txokolata-ogia askaldu zuten. Askariaren banaketaz bi sukaldari goitik beheiti dena zuriz jantziak arduratu ziren.

Hilean behin asteazken arratsaldean eskainiko da eta adin horietako umei eskolan jakinaraziko zaie.



ESTELLA PASTELERIA GOXOTEGIA LIZARRA
NAPAL MONTIYA
Angela
Plaza Fueros 2 Tel 948 55 07 95

AROA
Ardo Eko...logiko!
Zurkoin
Dietari
31292 Nafarroa
948 555394
info@arowines.com

LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA
Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

KATXETAS
Taberna
Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa
Tel. 948 550 010

ILARGI
Gabon zoriontsuak
eta urteberri on!
MAYOR 22
NAGUSIA
TFNO.: 948 553 421
31200 LIZARRA/ESTELLA

BAR
OLARY
Félix Huarte plaza, 7
31007 IRUÑA
Tel. 948 264 576